

OTXARKOAGA ETA TXURDINAGA AUZOETAN UDAL ORTUEN ERABILERA ETA APROBETXAMENDURAKO BAIMENAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.

Bilboko Udalak, Otxarkoaga auzoan katastroko identifikaziotzat **10354 zenbakia** duen udal-partzela erabilgarri jarri, bide berriak bultzatu nahi ditu, ortuzaintza ekologikoa lantzeko, naturarekin harremanetan egoteko, eta auzokideek espazioak eta esperientziak komunitatean partekatzeko jarduerak aurrera eramateko, biodibertsitatea sustatzeko estrategiaren barruan.

Udal-ortuen proiektua eskaintza pedagogikoa eta ekologikoa da, auzokideek espazio publiko bat izan dezaten, bertan lurra modu ekologikoan lantzeko eta lur horren fruituak eskuratzeko, norberaren kontsumorako, ingurumen-hezkuntza eta gizarte-dinamizazioa zabaltzeaz gain, jarrera eta balioen aldaketa sustatuta, parte-hartzean eta arduran oinarrituriko jokabideak sortze aldera. Era berean, balioko du elikadura osasuntsuaren garrantziaz kontzientziatzeko –osasun onari eustearren–, barazki-barietate tradizionalak erabiltzearen garrantziaz sentsibilizatzeko –ingurunera egokituago dauden espezieak izatean duten baliogatik eta, beraz, zaintza eta tratamendu gutxiago behar izateagatik–, eta nekazaritzako praktika eta ezagutza tradizionalak transmititzeko.

Auzoko ortuak, Bilboko eraztun berdearen sustapenaren barruan, hezkuntzaren eta aisialdiaren alorreko jarduerak bultzatzeko bidea dira, adin guztietako pertsonentzat, gizarte-dinamizazioa eta ingurune naturalaren sustapena lehenetsuzkoak direla, aldi berean garapen iraunkorra sustatzen duen alternatiba bat sortuz, kulturaren zein aisialdi aktiboaren arlokoa.

Era berean, proiektua naturaren gune estrategikoak bultzatzeko bide gisa pentsatu da, halakoetan ingurumen-hezkuntzako kanpainak aurrera eramateko hainbat biztanle-sektoreekin, prozesu naturaletatik nahiz bizi-zikloetatik ikasteko behatoki bihurturik. Hala, norberaren bizipenen bitartez, bide ematen da naturarekiko errespetuak duen garrantzia eta gure hirian garapen iraunkorra edukitzearen beharra ulertzeko.

1. artikulua.- Xedea

Oinarri hauek Otxarkoagako 10354 zenbakiko udal partzelan dauden auzoko ortuen erabilera eta aprobetxamendurako baimenak emateko prozedura arautzen dute.

2. artikulua.- Ortuen deskribapena.

Baimenetan sartuko diren ortuen kopurua 56 izango da, eta 40 m²-koak izango dira, gutxi gorabehera.

Lursailak berezita egongo dira.

Nolanahi ere, ortuen behin betiko neurriak obrari *in situ* egingo zaion zuinetaren ondoren zehaztuko dira.

Partzelan erabiltzaile guztientzako txabola bat egongo da. Bertan, banakako armairuak egongo dira, bai eta gunee komun bat ere, nekazaritzako lanabesak uzteko.

Ortuak loteka emango dira, onuradunen arabera:

- 1. Auzoko bizilagunen lotea**
- 2. Auzoko iraupen luzeko langabetuen lotea**
- 3. Desgaitasunen bat duten pertsonen edo halakoen elkarteen lotea**
- 4. Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarteen lotea, lehentasuna izanik:**
 - ▶ **Gazteek osatutako elkarteak**
 - ▶ **Helburutzat gizarte-kohesioa, edo**
 - ▶ **Ingurumenaren sustapena duten elkarteak**

Irabazi asmorik gabeko elkarteen loteetan, bereziki izango dira kontuan, auzo-bihotzen proiektuan jasoriko informazioaren arabera, Otxarkoaga auzoaren berezko ezaugarri hauek:

- Otxarkoaga/Txurdinagako irabazi asmorik gabeko elkarteak, auzoko gazteek astialdian ongi pasatzea eta ikastea sustatzeko helburua duten proposamenak aurkezten dituztenean, lehendik auzoan badauden taldeen tradizioari lotuta: mendizale-taldeak, eskaut- eta astialdi-taldeak, parrokiako taldeak, gizarte-heziketako esku-hartzerako lantaldeak, ingurumenaren aldeko jarduerak sustatzen dituztenak.

3. artikulua.- Izaera eta araubide juridikoa

Ortuak erabiltzeko baimenak Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legean nahiz Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartzen duen ekainaren 30eko 1372/1986 Errege Dekretuan xedatutakoari jarraituz arauturik egongo dira. Era berean, Espazio Publikoaren Ordenantzaren arauetara loturik egongo dira (Osoko Bilkuraren erabakiz 2010eko irailaren 23an onetsia).

Lurren jabetza Udalarena izaki, Udalak berak izango du haiek administratu, kudeatu eta zuzentzeko eskumena. Horri dagokionez, Udalak eskubidea izango du lursailen antolaketan eta banaketan aldaketak egiteko, bai eta bestelako azalerak emateko ere, gorabeherarik edo ustekabekorik gertatuz gero.

Erabiltzeko baimena prekarioan emango da, eta edonoiz ezeztatu edo aldatu ahalko da, kausa justifikatuak daudenean, baimenaren baldintzak ez betetzearen ondorioz, edo ezinbesteko arrazoiak daudenean, behar bezala egiaztatuta; dena dela, titularrak ez du inola ere eskubiderik izango kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

Udalak ez du batere erantzukizunik izango onuradunek, jardueraren ondorioz, jasandako edo eragindako kalteengatik, ez eta onuradun horiek hirugarren batzuei eragindako kalteengatik ere, halakorik eraginez gero.

Udaleko organo eskudunak ebatziko ditu baimenaren interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruzko auziak. Organo horren erabakiek administrazio-bidea agortuko dute, eta berehala betearaztekoak izango dira. Erabakion aurka aukerako berrikusteko errekurtsua edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko epaitegi eta auzitegien aurrean.

4.artikulua.- Baimenaren iraupena.

Baimena bi urteko eperako emango da, esleipena formalizatzen denetik edo ortua emateko akta izenpetzen denetik zenbatzen hasita, eta urtebetez luzatzeko aukera egongo da.

Bi urteko hasierako epea bukatzen denean, bi alderdiek ez badute era fedemailean baimenari uko egiteko edo hura ezeztatzeko nahia aditzera ematen, beste urtebetez luzatuko da automatikoki, inola ere hiru urteak gainditu gabe formalizazioaz geroztik.

5. artikulua.- Erabileraren araubidea

Instalazioen sistema guztiaren funtzionamendua nekazaritza ekologikoko irizpideetan oinarrituko da bakar-bakarrik. Ekoizpen ekologikoan erabiliko diren lur-lantzeko eta laborantzako praktikak lurzoruko materia organikoa atxikitzen eta gehitzen dutenak, haren egonkortasuna eta biodibertsitatea sendotzen dituztenak eta trinkotzea eta higadura saihesten dituztenak izango dira bakar-bakarrik.

Beste edozein jarduerak berriazko debekua du, produktuak saltzea, biltegitratze oro nahiz edozein fabrika-obra egitea barne. Betebehar hori ez betetzeak baimena ezeztatzea dakar automatikoki.

Onuradun gertatzen diren pertsonak edo elkarteek egiaztatu beharko dute nekazaritzako praktika ekologikoen gainean duten ezagutza. Horretarako, hasieran, nahitaez joan beharko dute nekazaritza ekologikoari buruz Udalak antolaturiko prestakuntza-saio praktiko batera. Halaber, finkaren ingurumen-kudeaketan parte hartu beharko dute, bai eta bertan aurrera eramaten diren ingurumen-hezkuntzako programetan ere.

Onuradun diren pertsonak edo elkarteek ur-hargune bat izango dute ureztatze, bai eta nekazaritzako tresnak uzteko leku komun bat erabiltzeko eskubidea ere.

Ortura sartzeko ordutegia 09:00etatik 19:00etara bitartekoa izango da neguan, eta 09:00etatik 21:30era bitartekoa udan, asteburuak barne.

6. artikulua.- Debekuak

1.- Erabiltzaileek debekatuta dute txabolak nahiz beste elementu finko edo desmontagarri batzuk jartzea –hala nola, olanak, plastikoak, bidoiak, **bankuak, banantzeko elementuak**– eta/edo edozein obra egitea. **Udalaren berriarazko baimena beharko da elementu berriak jartzeko edo daudenak aldatzeko. Baimen hori idatziz eskatu beharko da, eta bide bera erabiliz erantzungo zaio eskatzaileari.**

2.- Ez da baimentzen inolako animaliarik haztea, ez eta heskaia eratzen duten edo ondoko ortuari eguzkia galarazten dioten zuhaitzak landatzea ere. Halaber, ez da onartzen espezie exotiko, tropikal psikotropiko eta/edo legez debekatuen soropil-larrerik haztea, ez eta lurzorua andeatzen duten landareena ere.

3.- **Fauna harrapatzeko tranpak edo selektiboak ez diren harrapatze-metodoak erabiltzea, eta harrapatzeko jakiak jartzea, pozoia izan zein ez.**

4.- Ez da onartuko espezie transgenikorik edo genetikoki eraldatutako espezierik erabiltzea.

5.- Debekatuta dago animaliak paseatzea ortuen esparruaren barruan.

6.- Ortuak nekazaritza-erabilera izango du bakar-bakarrik, eta nekazaritza-ekoizpen ekologikoari eta nekazaritza- eta elikadura-produktuetan ekoizpen-mota hori adierazteko moduari buruzko 2092/1991 (EEE) Erregelamenduan jasotako nekazaritza ekologikoaren printzipioei jarraituz landuko da. Horrenbestez, debekatuta dago ortuko laboreetan **nekazaritza ekologikoaren arloan indarrean den legediak onartzen ez dituen** herbizidak, pestizidak eta ongari kimikoak erabiltzea.

7.- Berriarazko debekua du ortuak landuz lorturiko produktuak saltzeak.

8.- Debeku da sua erabiltzea ortuen esparru osoan, **edozein helburu duela ere.**

9.- Ezingo da manipulatu edo aldatu dagoen ur-hargunearen instalazioa. **Ez da onartuko ur-mahukarik erabiltzea, ez lursaila ureztatzeko, ez ureztatze-sistema alternatiboren bat hornitzeko.**

10.- Esleitutako ortua ezingo da inola ere laga edo eskualdatu, Administrazioak berriarazko baimena eman ezean.

11.- Ortuak ezingo da bizilekutzat erabili, ez modu iraunkorrean, ez behin-behinean.

12.- **Baimenik gabe, esparruan ibilgailu pribatuak sartzeko edo aparkatzea.**

13.- Debekatuta dago eragozpenak edo kiratsa ekartzen dituen beste edozein erabilera edo jokabide, bai eta ortuen gainerako erabiltzaileen erabilera edo gozamina murrizten dituzten edo inguruneari eragiten dioten erabilerak eta jokabideak ere.

Artikulu honetan zerrendatu diren **klausulak** ez betetzeak ortua erabiltzeko baimena ezeztatzea ekarriko du.

7. artikulua.- Onuradunak

Proiektu honi atxikitako auzoak Otxarkoaga eta Txurdinaga dira.

Ortuak loteka banatuko dira, irizpide hauek kontuan izanda:

1. lursailetik 36. lursailera, biak barne, auzoko bizilagunentzat: banaka edo taldeka aurkeztu ahalko dira.

37. lursailetik 47. lursailera, biak barne, auzoko iraupen luzeko langabetuentzat.

48. lursailetik 50. lursailera, biak barne, desgaitasun fisiko edo intelektualen bat duten pertsonentzat edo halakoen elkarreentzat.

51. eta 55. lursailak, 4. Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarreentzat, behar bezala inskribatuta badaude Elkarteen Udal Erregistroan.

56. lursaila Bilboko Udalarentzat gordeko da, Eskola Agenda 21ekin lotutako jardueretarako erabiltzeko.

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradun diren pertsonak honako eskubide hauek izango dituzte:

- 1.- Esleipenaren unean, erabiltzeko eta gozatzeko egoera onean dagoen lursail bat erabilgarri izatea, ezarritako ordutegian.
- 2.- Nekazaritza ekologikoari buruzko aurretiazko prestakuntza jasotzea.
- 3.- Lursailen ur-hargune komun bat izatea.
- 4.- Nekazaritzako lanabesak gordetzeko erabiltzaile guztientzako ekipamendua erabiltzea.
- 5.- Ortuko produktuak autokontsumorako erabiltzea.

9. artikulua.- Onuradunen betebeharrak

Auzoko ortuak erabiltzeko baimenaren onuradun diren pertsonak honako betebeharrak izango dituzte:

- 1.- Esleitutako ortuaren egoera ona gorde eta mantentzea, eta okupatzen den espazioa nahiz gainerako instalazioak onik zaintzea, egoerarik onenean segurtasunaren, osasunaren nahiz apaintasun publikoaren aldetik; eremu komunak garbitzeaz eta esparruaren mantentze orokorrak arduratuko dira.
- 2.- Sortzen diren hondakin organikoak kudeatzea, gero berriz ongarritzat erabiltzeko; ahal dela, partzelaren beraren barruan.
- 3.- Sortzen diren gainerako hondakinak behar bezala bereiztea eta dagokien edukiontzira botatzea.
- 4.- Lurra irizpide ekologikoei jarraituz erabiltzea; horren inguruan Udalak ezartzen dituen baldintzak bete beharko dira.
- 5.- Ureztatze ura modu arduratsuan kontsumitzea.
- 6.- Nekazaritzako sasoiaren barruan, ortua jarraitutasunez lantzea. Kausa justifikaturik gabe, bi hilabetez baino gehiagoz ortua zaintzeari uzten bazaio,

haren erabiltzaile den pertsona edo elkartearen proiektutik ateraraziko da, eta ortua beste eskatzaile bati lagako zaio.

7.- Pasabidetarako gordetzen den tokia libre eta garbi edukitzea.

8.- Erruz edo zabarkeriaz hondatzen diren ondasun edo ekipamenduak konpontzeko edo ordeztzeko betebeharra.

9.- Antolatzen diren dinamizazioko eta ingurumen-hezkuntzako jardueretan laguntzea, hala nola, ortuko produktuen erakusketetan, jardunaldi didaktikoetan, eta denboran zehar programatzen diren gizarte-dinamizazioko gainerako jardueretan –esleipendun elkarteek zein udalaren ekimenez antolatutakoak–.

10.- Udalak ortuekin zuzenean lotuta antolatzen dituen ikastaro eta jardunaldietara joatea.

11.- Udaleko pertsonalak edo horretarako izendaturiko erakundeak edozein unetan instalazio guztiak –banakoek zein guztiak erabiltzekoak– ikuska ditzan uztea, araudia zuzen betetzen dela egiaztatze aldera.

12.- Une oro errespetatzea Udalak jardueraren arduradun gisa esleitutako pertsonaren aginduak.

Artikulu honetan zerrendatu diren betebeharrak ez betetzeak ortua erabiltzeko baimena ezeztatzea ekarriko du.

10. artikulua.- Bitartekaritza

Ortuen erabiltzaileek pertsona bat edo bi aukeratu beharko dituzte, haien ordezkari izateko eta Udalarekin bitartekari-lana egiteko.

11. artikulua.- Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

Lehiaketan parte hartzeko, interesa duten pertsonak edo elkarteek beren eskabideak baldintza-orri honen I. eranskinean jasotako eskabide-ereduaren arabera bete beharko dituzte, eta eskatzen diren agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

Eskabideak bete eta gero, Bilboko Udaletxeko Erregistro Orokorrean (Ernesto Erkoreka plaza 12) edo barrutietako udaltegietako erregistroetan aurkeztu beharko dira, 2017ko apirilaren 06 ra arte, asteleheneetik ostiralera, 08:30etatik 14:00etara. Eskabideak aurkeztu ahalko dira, orobat, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan jasotako moduetakoren batean.

12. artikulua.- Aurkeztu behar diren agiriak

Onartuak izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1.- Auzoko bizilagunak:

⇒ NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.

⇒ Errolda-orria, egunean.

⇒ Bizilagun bat baino gehiago aurkeztuz gero:

- ✓ Taldekideen NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- ✓ Taldekideen errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.
- ✓ Taldea eratzeko barne-akordioa, kideak zein diren eta Udalarekin bitartekari aritzeko arduraduna zein den zehaztuta. (2 bitartekari gehienez)
- ✓

2.- Desgaitasun fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak:

- ✓ NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- ✓ Errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.
- ✓ Desgaitasunaren ziurtagiria.

Desgaitasunen bat duten pertsonen elkarte bat aurkeztuz gero:

- ✓ Erakunde edo elkartearen formalizazioa egiaztatzen duten agiriak eta estatutuak.
- ✓ Txosten bat, esleituriko ortuaren bidez bazkideekin egin asmo diren ustiapen pedagogikoko jarduerari buruz.

3.- Langabezian dauden auzoko pertsonak:

- ✓ NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- ✓ Errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.
- ✓ LANBIDEk emandako ziurtagiria, langabezia-egoeraren antzinatea-data adierazita, iraupen luzeko langabetuaren estatua egiaztatzen duena.

4.- Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarteak:

- ✓ Proiektu bat, esleituriko ortuan gauzatu nahi dituzten jarduerak eta ustiapen-modua zehaztuta, bai eta aurreikusitako dinamizazio-jarduerak edo ingurune naturala sustatzeko jarduerak ere, haien helburu sozialari zuzenean loturik, betiere.
- ✓ Udalarekin bitartekari-lanak egiteko ordezkaria eta bere NAN/AIZren fotokopia.

13. artikulua.- Esleitzeko eta baloratzeko prozedura:

Eskabidean, eskatzaile bakoitzak bere burua aurkezteko lote bakarra aukeratu beharko du; dena dela, arau hau ez da aplikatuko elkarte bateko kide gisa ere aurkeztu nahi badu.

a) Auzoko bizilagunei esleitzea: zozketaren bidez.

b) Auzoko iraupen luzeko langabetuentzako lotea esleitzea: zozketaren bidez.

c) Desgaitasunen bat duten pertsonen edo halakoen elkarteetan loterako esleitze-irizpideak:

c.1.- Banakoen kasuan, **gehienez 5 puntuko** balorazioa emango da

- ✓ 5 puntu, aurkezten den pertsona ortuen baimenei atxikitako barrutian erroldaturik baldin badago.

c. 2.- Elkarteetan kasuan, **gehienez 5 puntuko** balorazioa emango da

- ✓ 3 puntu, elkartearen egoitza soziala baimenari atxikitako auzoan baldin badago.
- ✓ 2 puntu, elkartearen helburuak eta ortuari eman asmo dion erabilera pedagogikoa azaltzeko aurkezten den proposamena baloratuta.

d) Bilboko irabazi-asmorik gabeko elkarteetan loterako esleitze-irizpideak:

⇒ **Gehienez, 5 puntu.**

- ✓ 3 puntu, elkartearen egoitza soziala baimenari atxikitako auzoan baldin badago.

- ✓ 2 puntu, elkartearen helburuak eta ortuari eman asmo dion erabilera pedagogikoa azaltzeko aurkeztu den proposamena baloratuta

Auzoko elkarteek azalpenezko txosten bat aurkeztu beharko dute, ortuaren ustiapena gazteentzako jardueren, gizarte-dinamizazioa eta -kohesioa sustatzeko edo biodibertsitatea eta, oro har, ingurumena sustatzeko eta dinamizatzeko egokitzeari buruz, jarduerok haien helburu sozialari zuzenean loturik daudela, nahitaez. Zehazki, Otxarkoaga/Txurdinaga auzoan baloratuko diren irabazi -asmorik gabeko elkarteak izango dira auzoko gazteek astialdian ongi pasatzea eta ikastea sustatzeko helburua duten proposamenak aurkeztu dituztenak, lehendik auzoan badauden taldeen tradizioari lotuta (mendizale-taldeak, eskaut- eta astialdi-taldeak, parrokiako taldeak, eta gizarte-heziketako esku-hartzerako lantaldeak, besteak beste).

14. artikulua.- Balorazio Batzordea

Balorazio Batzordeak aurkezturiko agiriak aztertuko ditu, prozesuan onartuen behin betiko zerrenda osatuko du, balorazioa egin, eta pertsonak eta elkarteak proposatuko ditu, baimenaren onuradun izan daitezten.

Batzordeko kideak hauek izango dira:

- Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko Zuzendaritza, edo hark eskuordetutako pertsona.

Teknikariak:

- Batzordekideak: Ingurumeneko Zuzendariordetza
- Batzordekideak: Ingurumenaren Estrategia eta Sustapen Sekzioko burua.
- Batzordekideak: Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko teknikari 1.
- Kudeaketako Zuzendariordetzaren Euskarri Juridikoaren teknikari bat arituko da idazkari.

15. artikulua.- Onartuen zerrenda

Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta gero, Balorazio Batzordeak agiriak behar den epean eta moduan aurkeztu diren aztertuko du, **onartuen eta ez onartuen zerrenda** osatzeko.

Zerrenda hori Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da, eta hamar eguneko epea emango da eskabideen akatsak zuzentzeko, halakorik egonez gero.

16. artikulua.- Behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda

Aurreko epe hori igaro eta gero, Batzordeak aurkezturiko eskabideak aztertuko ditu, eta **esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxarote-zerrenda** osatuko ditu, zozketaren emaitzaren edo aurrez ezarritako irizpideei jarraituz lorturiko puntuazioaren arabera.

Puntuazioetan berdinketarik gertatuz gero, eta ez badago nahikoa lursailik eskatzaile guztiei banatzeko, auzi hori **zozketa publiko** bitartez ebatziko da. Horrez gain, zozketa publiko bitartez ebatziko da lote bakoitzaren barruko lursailen esleipena bera. Balorazio Batzordeko idazkariak zozketa horren akta egingo du.

Balorazio Batzordeak **lursailen loteak esleitzeko** proposamena egin eta gero, dagokion behin-behineko zerrenda osatuko da, eta jendaurrean jarriko da Udalaren iragarki-oholean eta webgunean. Haren aurkako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira, hamar eguneko epean, argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

17. artikulua.- Behin betiko zerrenda eta itxarote-zerrenda

Epea erreklamaziorik gabe igaro eta gero edo, aurkezten badira, halakoak ebatzi eta gero, **Gobernu Batzordeak** erabakia hartuko du, erabiltzeko baimenen onuradunen sailkapena onartzeko. Gero, baimenak formalizatuko dira, Udalak nekazaritza ekologikoari buruz emango duen prestakuntza jaso dela egiaztatu eta gero.

Era berean, **behin betiko itxarote-zerrenda** osatuta utziko da. Zerrenda horretan, baldintzak bete arren, lursail baten onuradun atera ez diren eskatzaileak egongo dira.

Gobernu Batzordeak onartzeko erabakia hartu eta gero, onuradunen zerrenda eta itxarote-zerrenda Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, onuradun bakoitzari behar bezala jakinarazteaz gain.

Zerrenda horren aurka aukerako berrikusteko errekurtsua aurkeztu ahalko da hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen denean, behin-behineko esleipendunak behin betiko esleipendun bihurtuko dira. Bestela, dagokion ortua libre geratuko da, eta berriz esleituko da, itxarote-zerrendako hurrenkerari jarraituz. Itxarote-zerrendara jotzen den kasuetan, onuraduna edo onuradunak lursaila erabiltzeko baimenaren epeari hurrengo deialdira arte falta zaion aldirako lirateke esleipendun, itxarote-zerrendan egondako pertsonak edo pertsonak deialdi berrian lehentasunen bat izan zein ez esleipen berriari begira.

18.artikulua.- Baimenak formalizatzea.

Baimenak emateko prozesua bukatu eta behin betiko itxarote-zerrenda osatu eta gero, ortuak erabiltzeko baimenak formalizatu egingo dira, Udalak emandako prestakuntza-ikastarora joan izana egiaztatzeko behararekin. Prestakuntza horretara joan izana ezinbesteko baldintza da lursailak erabili ahal izateko. Prestakuntzara joaten ez bada, uko egin dela ulertuko da.

19.artikulua – Baimena azkentzea eta ezeztatzea

Jabari publikoko ortuak ustiatzeko baimena ondorengo kausak direla medio azkenduko da:

1. Borondatez uko egitea edo baja hartzea, Udalaren erregistroan aurkezturiko idazki baten bitartez.
2. Baimena duen pertsona hiltzea edo desgaiturik geratzea.
3. Bi aldeak horretarako ados jartzea.
4. Baimenaren epea iraungitzea edo muga-egunera iristea.
5. Esleipena eragin zuten zirkunstantziak desagertzea.

Administrazio baimen-emaileak edonoiz ezeztatu ahalko du baimena alde bakarreko erabakiz, interes publikoko arrazoiak direla medio, edo baldintza-orri honetako baldintzak ez betetzeagatik, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

I. ERANSKINA

OTXARKOAGA ETA TXURDINAGA AUZOETAN ORTU EKOLOGIKOAK ERABILTZEKO BAIMENEN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA

..... jaunak/andreak, adinez nagusia izanik (NAN zk.:.....), eta bizilekua honako helbidean duela (kalea):....., (zk.:)..... (solairua):....., harremanetarako telefonoa.....eta helbide elektronikoa....., jakinarazpenak egiteko

ESKATZEN DU:

Otxarkoaga/Txuridinaga auzoan, ortu ekologiko baten aprobetxamendu, erabilera eta gozamenerako BAIMENA emateko prozesuan parte hartzea. Halaber, aditzera ematen du Gobernu Batzordeak 2017ko otsailaren 22an onartutako oinarri hauetan eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, eta halakoak ezagutzen eta onartzen dituela, batere eragozpenik jarri gabe.

Ondoko agiri hauek gehitzen ditu:

Auzoko bizilagunen lotea:

Bizilagun bat banaka aurkeztuz gero:

- NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- Errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.

Bizilagun-taldea aurkeztuz gero:

- Taldekide guztien NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- Taldekide guztien errolda-orria edo errolda-ziurtagiria, egunean.
- Taldea eratzeko barne-akordioa, kideak zein diren zehaztuta.
- Udalarekin bitartekari aritzeko pertsonaren edo pertsonen izendapena (gehienez 2 pertsona).

Auzoko epe luzeko langabeentzako lotea:

- NANaren edo halakoa legez ordezkatzeko duen agiriaren fotokopia.
- Errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.
- LANBIDEK emandako ziurtagiria, langabezia-egoera eta haren antzintasuna ziurtatuta.

Desgaitasunen bat duten pertsonen edo halakoen elkarteen lotea:

Banakoa aurkeztuz gero:

- NANaren edo halakoa legez ordezkatzen duen agiriaren fotokopia.
- Errolda-ziurtagiria edo errolda-orria, egunean.
- Desgaitasunaren ziurtagiria.

Elkartea aurkeztuz gero:

- Erakunde edo elkartearen formalizazioa egiaztatzen duten agiriak eta estatutuak.
- Ortuaren erabilera pedagogikorako proposamena.
- Ordez kariaren NAN/AIZren fotokopia

Bilboko irabazi asmorik gabeko elkarteen lotea:

- Irabazi asmorik gabeko elkartearen proposamena gizarte-dinamizazioari buruz edo ingurune naturalaren sustapenari buruz.
- Irabazi asmorik gabeko elkartearen ordez kariaren edo ordez karien izendapena (gehienez 2).
- Ordez kariaren NAN/AIZren fotokopia.

Bilbon, 2017koaren(e)(a)n.

Eskatzailearen edo eskatzaileen sinadura